

# III. KONGRESUKO ‘HERRIGAIA’ PONENTZIAREN ZATIKAKO ZUZENKETEN BOZKETA

---

‘Herrigaia’ ponentziari zatikako zuzenketak aurkezteko aukera izan dute Kongresu prozesu honetan akreditatuta dauden pertsonak. Bozkatuko diren zatikako zuzenketa guztiekin memoria argitaratu du Nazio Kontseiluak.

120 zuzenketa bozkatuko dira. Kasu batzuetan, testuan hobekuntzak planteatu dira, beste batzuetan gehikuntzak eta besteetan ezabaketak. Gehikuntza eta ezabaketen kasuetan, gehikuntzari ala ezabaketari baiezkoa, ezezkoa edo boto zuria eman ahal izango zaie. Hobekuntza planteatzen den kasuetan, hobekuntza, jatorrizkoa ala zuria bozkatu ahal izango da.

Bozkatzeko epea honako hau izango da: 2021eko abenduaren 17ko 00:00etatik, 2021eko abenduaren 19ko 23:59ra.

Kongresu prozesu honetarako akreditatuta dauden pertsonak edukiko dute bozkatzeko aukera, zehazki, zensoa 7.936 lagunena da.

Bozkatzeko bi modu daude:

- 1) Telematikoa: [partehartu.sortu.eus](https://partehartu.sortu.eus) plataformaren bidez egingo da.
- 2) Presentziala: Auzo, herri eta eskualdeetan jarriko diren bozketa guneeetan egingo da. Gune horiek <https://sortu.eus/destakatua/non-egingo-dira-zatikako-zuzenketen-bozketak> helbidean ikus daiteke.